



HAURRESKOLAK PARTZUERGOA:

2003an sortu zenetik, Haurreskolak Partzuergoa etengabe hazten joan da urtetik urtera. Badira hainbat behar eta hutsune hasieratik behar bezala bete ez direnak. Beste hainbat, ordea, berriak dira.

LABen ustez 06-07 ikasturtean erronka nagusienak arlo hauetan ditugu.

1.- Koordinazioa. Hezitzaileen arteko koordinazioa funtsezkoa da, eskolaren proiektua garatzeko, lanak eta helburu hezitzaileak programatzeko eta dinamizatzeko... Funtzio horrek eta zentroaren kudeaketak eskatzen du koordinatzailearen figura errekonozitzea, (formazioa, ordu murrizketa, behar den kontratazioa...), hezitzaileen arteko koordinaziorako denbora...

2.- Formazioa. Hezkuntza arloan etengabeko formazioa ere ezinbestekoa da. Horregatik aldarrikatzen dugu batetik urte anitzetako programa serio eta iraunkorra, behar errealei erantzungo diena, eta bestetik GARATU eta IRALERen baitan gure azpisektorerako plazak gordetzea. Bide batez, salatu nahi dugu iazko formazio programa bertan behera geratu zela amaitu gabe, eta arduradunik gabe geratuz.

3.- Egoitzak. Pasa den ikasturtean LABek egoitzen baldintza material eta hornikuntzari buruzko azterketa egin zuen, eta Partzuergoari hainbat eskaera egin genizkion. Enpresa prest agertu da ikusi ditugun behar eta hutsuneak betetzen joateko. Jarraipena egiten ari gara.

4.- Enpresaren kudeaketa. Enpresak hartu duen bolumenagatik, langileen kudeaketa, ikasturtearen plangintza, formazioaren programazioa, on-line kontsultak... asko konplikatu dira. Horregatik enpresaren kudeaketa egiteko pertsonal gehiago eskatzen dugu.

ERRONKA ZAHAR ETA BERRIAK.

5.- Sukalde eta garbitasuna. Badakigu haur eskola guztietarako sukaldearen auziari erantzun bakarra ematea ezinezkoa dela. Baina beharrezkoa ikusten dugu banaka aztertzea eta neurriak hartzea funtzio hori hobetzeko. Horrek eskatuko du, besteak beste, sukaldariak kontratatzea.

Garbitasunari dagokionean, eskolen bereizgarriengatik, garbitasun berezia behar da, eta horretarako behar bezalako kontratazio eta denbora eskatzen ditugu.

6.- Egutegia. ARALARren ekimenez onartutako ez legezko proposamenak eragin du haur eskolaren egutegia luzatzea. Horrek ez du ez hankarik ez bururik, eta ondorio larriak izan ditzake: kontratazio prekarioak, haurrak hezitzaile ezezagunak izatea, erreferentziazko zentroz aldatzea... Ikasturte honetan martxan jarriko da. Guk aurkako jarrera agertzen jarraituko dugu.

7.- Baremazioak. Urte hauetan baremazioak irizpide ezberdinekin egin dira eta ez da aukerarik eman aurreko urteetako merituen erreklamazioak egiteko. Urrian auzi honi helduko diogu zerrenda bakarra behar bezala eta zuzenketak egin ahal izateko.

AZPISEKTOREAREN OINARRIAK FINKATZEN ARI GARA. ZERBITZUA ZABALTZEN, LANGILEON OINARRIAK FINKATZEN.

LAB SINDIKATUAK ILUSIOZ IKUSTEN DU AZPISEKTORE HAU. GURE HERRIAREN GARAPENERAKO ESTRATEGIKOA DELAKO, ETA LANGILE KOLEKTIBOA GOGOZ IKUSTEN DUGULAKO.

HEL DIEZAI OGUN ELKARREKIN 06-07 IKASTURTEKO ERRONKEI!

ANIMA ZAITEZ, ETA ZATOZ GURERA.

Euskal Herrian, 2006 abuztuaren 31a